

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Hasierako onespena ematea Aguraingo hiri antolamendurako plan orokorraren bosgarren aldaketa puntualari

Udal honek, 2024ko apirilaren 25ean egindako ohiko osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion Aguraingo hiri antolamendurako plan orokorraren bosgarren aldaketa puntualari. Aldaketa horrek antolamendu xehatuari eragiten dio, eta Funerarias Duero SLU enpresak eskatuta izapidetzen ari da, ingurumen txosten estrategikoak ezartzen duenaren arabera, bat etorritik martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 31.3 artikuluan ezarritakoarekin.

Planaren aldaketa hori, horretarako izapidetzen den espedientearekin batera, jendaurrean jarriko da, iragarki hau ALHAOn, Arabako Lurralde Historikoko tirada handieneko egunkarian eta udal honen egoitza elektronikoan argitaratuz, eta jendaurrean egongo da hogeitun egun balio-duneko epean, azken argitalpenetik zenbatzen hasita, eragindakoek aztertu eta egokitzat jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten, hori guztia Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 95.2 artikulua arabera.

Agurain, 2024ko maiatzaren 10a

Alkatea

RAUL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR